



IRAKASLEEN IRAKAS-JARDUERAZ IKASLEEK DUTEN IRITZIARI O URUZKë INKESTA

*Ikasleen iritziari buruzko inkesta
nola egin gela birtualean*



Irakasleentzako Erabiltzailearen Eskuliburua

2025/2026 Ikasturtea



AURKIBIDEA

Sarrera	5
1. URRATSA: INKESTAREN BLOKEA NOLA AKTIBATU	6
2. URRATSA: INKESTA NOLA EGIN	10
3. URRATSA: INKESTAREN BLOKEA NOLA DESAKTIBATU	11
ARGIBIDEAK	13

SARRERA

Pasaden ikasturtean, Gradu eta Eraldaketa Digitalerako Errektoreordetzak, **Ikasleen Iritziari buruzko inkestaren prozedura digitalizatzeko** proiektu bat jarri zuen martxan.

Proiektu honen helburua bikoitza da, batetik, papera ezabatzea (ikasturte bakoitzean 220.000 galdetegi baino gehiago jasotzen dira) eta, bestetik, inkestak biltzeko prozedura orokorra sinplifikatzea, besteak beste, ikastegietako idazkaritzetan gutun-azalen erregistroa bertan behera uztea.


Inkesta egiteko prozedura digitala erraza izango da, eGela bidez. Irakasleak **"Ikasleen iritziaren inkesta"** izeneko bloke bat aktibatuko du, dagoeneko konfiguratuta dagoena, eta, ikasleek blokea eta botoi bat eskuragarri izango dituzte ohiko galdetegia betetzeko. Ahalik eta erantzun gehien biltzeko helburu, **inkestatzeko prozedurak ikasleek galdetegia gelan bertan betetzea ezartzen du, eskolako lehen 15 minutuetan eta gailu mugikorrak erabiliz bete behar dutela.**

Irakasleak laguntzeko asmoz, Ikasleen iritziari buruzko inkestaren blokea eGelan konfiguratzeko eman beharreko urratsak jasotzen dituen eskuliburu hau osatu dugu.

Ebaluazio Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko kontaktuak:

Posta elektronikoaren helbidea	Tel. Zk.
ebaluazio.zerb.iritziak@ehu.eus	94 601 8174
	94 601 5103
	94 601 5954

Lehenik eta behin, gure gela birtualean sartuko gara, LDAP erabiltzailea eta pasahitza sartuz.




1. URRATSA: INKESTAREN BLOKEA NOLA AKTIBATU


Behin gela birtualean sartuta, EDIZIOA botoia aktibatu beharko dugu EDITATU ahal izateko.




Jarraian "GEHITU BLOKEA" aukeratu beharko dugu. Aukera hau ikastaroaren edukiaren goiko aldean zein eskumaldean agertzen da.



Ondorengo irudian agertzen den bezala, "GEHITU BLOKEA" sakatuz zerrenda bat zabalduko zaigu. Klik egin gehitu laukitxoan eta zerrendan aukeratu "Ikasleen iritziaren inkesta".




eGelaren orri nagusian bloke berri bat zabalduko zaigu. Bloke horretan gure izen-abizenak agertuko dira irakasle gisa, ondorengo irudian ikusten den bezala:



Ikasleek blokea behar den moduan ikusteko, blokea mugi daiteke (geziak erabiliz .

Inkesta blokeak konfiguragarriak dira gezen eskuinaldean dagoen engranajea sakatuz gero. Han, gelan matrikulatuta dauden irakasleen artean, inkesta blokean agertu behar den irakaslearen izena aukera dezakegu. Gela birtualean hainbat bloke aktibatu daitezke.

Azkenik, edizioa amaitzeko EDIZIOA botoian klik egin behar dugu berriz ere.




The screenshot shows the eGela platform interface for the 'Metrología Dimensional' course. The top navigation bar includes the eGela logo, user profile, and a red circle highlighting the 'Edizioa' (Edition) button. The main content area displays the course title 'Metrología Dimensional' and a section for 'Ikasleen iritziaren inkesta' (Students' opinion survey). The left sidebar lists various course materials and exams. The right sidebar provides links to virtual resources and forums.

2. URRATSA: INKESTA NOLA EGIN

Orain prest gaude ikasgelara joan eta ikasleei dagoeneko inkesta eGela bidez bete dezaketela jakinarazteko.

Horretarako, ikasleak gela birtualean sartu eta "Web bidezko inkesta- atzematea" botoia sakatu behar du. Ondoren, galdetegia zabalduko zaio bete ahal izateko.



The screenshot shows the eGela platform interface for the course "Metrología Dimensional". The interface includes a top navigation bar with the eGela logo and various menu items like "Hasiera", "Aginte-panela", and "Material erabilgarria". Below this is a secondary navigation bar with options like "Ikastaroa", "Ezarpinak", "Partaideak", etc. The main content area displays the course title "Metrología Dimensional" and a section titled "Ikasleen iritziaren inkesta" (Students' opinion survey). Under this section, it says "Irakaslea: IZENA ABIZENA ABIZENA" and features a button labeled "Web bidezko inkesta-atzematea" (Take the online survey), which is highlighted by a red rectangle and a red arrow. To the right of the main content, there is a sidebar with "Edukien aitortpena" (Course acknowledgment) and "NIRE IKASGELA BIRTUAL GUZTIETARAKO" (For all my virtual courses) sections.

Prozedurak ezartzen du inkesta **ikasgelan bertan egin behar dela, eskolako lehen 15 minutuetan** eta edozein gailu mugikor erabiliz. **Garrantzitsua da galdetegia ikasgelan bete behar dutela azpimarratzea, iritzi kopuru handia jasotzeko.**


3. URRATSA: INKESTAREN BLOKEA NOLA DESAKTIBATU


Irakasleak inkestaren blokea desaktibatu behar du eskola amaitutakoan. Horretarako, EDIZIOA botoia aktibatuko dugu.

Nolanahi ere, blokea automatikoki desaktibatuko da 48 orduan, eta irakasleek berriro aktibatu ahal izango dute behar beste aldiz.



Jarraian, gorpolean klik egingo dugu eta aukeratuko dugu ezabatu/desaktibatu Ikasleen iritziaren inkesta blokea. Bi ekintzek emaitza bera dute: blokea desagertzen da, baina jasotako iritziak ez dira ezabatzen.





The screenshot shows the eGela web application interface. The top navigation bar includes links like 'Ikastaroa', 'Ezarpinak', 'Partaideak', 'Kalifikazioak', 'Txostenak', 'Galdere-bankua', 'Eduki-bankua', 'Dominak', 'Iragazkiak', 'Zakarrontzia', and 'Inportatu'. The main content area is titled 'Metrología Dimensional' and features a 'Gehitu blokea' button. Below this, there is a section for 'Irakaslea: IZENA ABIZENA ABIZENA' with a 'Web bidezko inkesta-atzematea' button. A red box highlights the 'Ezabatu ikasleen iritziaren inkesta blokea' button. The sidebar on the left contains a list of navigation links under 'INFORMACIÓN GENERAL D...' and 'TEMA 1. INTRODUCCIÓN'.


Inkestari erantzuteko momentuan intzidentziaren bat badago, izan ikasleek gailu mugikorrik ez daukatelako, izan sisteman arazoren bat dagoelako inkesta egiteko unean, eGelako inkesten blokea aktibo utziko dugu.

Nolanahi ere, blokea automatikoki desaktibatzen da 48 ordu igaro ondoren. Ikastetxeak ordenagailu-geletan ordenagailuak ditu inkesta-aldi horretan inkestari erantzun ahal izateko.

ARGIBIDEAK

Irakasleak behar adina aldiz ireki eta itxi dezakete blokea. Talde magistralari irakasten bazaio, inkesta behin bakarrik egin behar du (orain arte paperez egin den bezala); baina soilik praktiketako azpitaldeetan eskolak ematen badira, inkesta ireki eta itxi egin beharko du praktiketako azpitalde bakoitzerako, irakasleak irakatsi dien ikasle guztiek erantzun dezaten.

Ikasgela birtual berean irakasle bat baino gehiago badago, irakasle bakoitzak bere bloke pertsonalizatua izango du izen-abizenekin, eta horrela adierazi beharko zaie ikasleei, nahasterik saihesteko.



The screenshot shows the eGela platform interface for the 'Metrología Dimensional' course. The main content area displays two individual blocks for teachers, each with a red box highlighting the 'Irakaslea' field and a 'Web bidezko inkesta-atzematea' button. Red callout boxes point to these fields with the text '1go irakaslearen bloke indibiduala' and '2. irakaslearen bloke indibiduala'.

UPV/EHUko Ebaluazio Zerbitzuak eta Kudeaketa Informatikarako Zentroak eGelatik egindako online prozedura erabat anonimoa, gardena eta konfidentziala dela bermatzen dute bertan inplikaturako alderdi guztientzat: ikasleak, irakasleak eta ebaluazio zerbitzua.

Hori horrela izanik, beharrezkoa da parte-hartzaile bakoitza bere LDAParekin identifikatzea, pertsona bakar batek galdetegi bakarra betetzen duela eta galdetegiak taldeko ikasleek bete dituztela bermatzeko, eta ezin da, inola ere, iritzi zehatzik identifikatu parte-hartzaile jakin batzuekin.


Funtsezkoa da ikasle bakoitza bere LDAParekin logueatuz satzea eGelako blokerak. Ikasle batek mugikorra beste bati uzten badio inkesta egiteko, lehenik eGelatik irten behar du eta gero berriro sartu LDAP berriarekin. Bestela, aplikazioak ikasle beraren bi iritzi balira bezala hartzen du, eta azkena bakarrik hartuko du kontuan, horrela bi ikasleetako baten iritzia galduz.

Irakaskuntza-egoeraren txostenak matrikulatutako ikasleen iritziak baino ez ditu jasoko.

Irakasle batek praktiketako azpitaldeak irakasgai bakar batean irakasten baditu, zati magistralean esku hartu gabe, **ezinbestekoa da GAUREn ikasleen matrikula praktiketako azpitalde bakoitzean grabatuta egotea**. Bestela, ezin izango dira iritziak kargatu eta ez da dagokion txostena sortuko. **Zeregin hori ikastegi bakoitzeko idazkaritzaren eskumena da.**

ON-LINE INKESTA EGITEKO PROIEKTU PILOTUA, eGelaren BIDEZ

Ikasleentzako galdetegi-datuen fluxua



(1) Irakasleak aktibatzen ditu eta ikasleei agertzen zaizkie.

(2) Galdetegira sartzen den ikasle bakoitzari *Hash* bat sortzen zaio, sarbidea formularioarekin lotzen duena eta aldaketak identifikatzen dituen.

(3) GAURera eramaten diren galdetegiaren datuak:

- Irakaslearen ID (zenbakizkoa)
- Ikasgelako ID (zenbakizkoa)
- Ikasturteko ID (alfanumerikoa, 20230_937_GAVD_20240_01 motakoa)
- Irakaslearen IPD (zenbakizkoa)
- Hash (\$2y\$10\$HSisVZkZ/bp3LHq/XVSGCuWYEOe6LZffsjl/emXlrEo52KSdcKfKe mota bakarra)
- Galdetegiaren emaitzak

(4) Txostenak paperezko galdetegiaren kontsultatzen diren berberak dira.

Irakaskuntza egoera jakin baten emaitzen txostena egiteko bakarrik hartuko dira kontuan irakaskuntzaren egoera horretan matriculatutako ikaslearen erantzunak. Gai nontzeko erantzunak baztertu egingo dira.

Ikasle bakoitzak erantzun bat baino gehiago ematen badu irakaskuntza-egoera bererako, bidalitako azken erantzuna grabatuko da.

IKT Gerentziaordetza 2023 azaroa